**2017KO EKAINAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA**.

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 29 DE JUNIO DE 2017**

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea. | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa. | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Hogeita bederatzia. | **DIA**: Veintinueve. |
| **HILABETEA**: Ekaina. | **MES**: Junio. |
| **URTEA**: Bi mila eta hamazazpi | **AÑO**: Dos mil diecisiete. |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko zazpiak. | **HORA DE COMIENZO**: Diecinueve horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa. | **CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena. | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |

**UDALBURUA/PRESIDENTE**:
AITOR ALDASORO ITURBE

**BILDUAK/REUNIDOS**:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak:

KOLDO AGIRRE MUJIKA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**ETORRI GABEA/AUSENTE**:

EAJ-PNV udal taldekoa:

XABIER MATARRANZ RICO

**IDAZKARIA/SECRETARIA**:
ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak ere, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

A la reunión también han asistido la interventora LURDES ALEGRIA LASA y Aitziber Yurrebaso como interprete.

**1.- AURREKO AKTA**. 2017ko maiatzaren 25eko akta onartzeko proposamena.

2017ko maiatzaren 25eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta del 25 de mayo de 2017.

Tras informar el acta del 25 de mayo de 2017, se ha aprobado por unanimidad.

**2.- TASAK**. Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2017-2018 ikasturterako tarifei hasierako onespena emateko proposamena.

Alkatea jaunak "Herritarrak" proposamenaren berri eman du:

**2.- TASAS**. Propuesta de aprobación inicial de tarifas para el curso escolar 2017-2018 de Beasaingo Loinatz Musika Eskola.

El Sr. Alcalde ha informado la propuesta de la Comisión de Ciudadanía.

"*GAIA*: ***Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2017-2018 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespena.***

*Herritarren Batzordeak 2.017ko ekainaren 22an egindako bileran, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Udalbatzaren onespenerako aurkezten du ondorengo akordio PROPOSAMENA:*

***Lehenik****.- 2017-2018 ikasturtean Beasaingo Loinatz Musika Eskolan emango diren irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasen eranskina hasiera batean onartzea:*

***ASUNTO: Aprobación de tarifas para el curso escolar 2017-2018 de Beasaingo Loinatz Musika Eskola.***

*La Comisión de Ciudadanía en reunión celebrada en fecha 22 de junio de 2.017, de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, acuerda, someter a la aprobación del Ayuntamiento Pleno la siguiente PROPUESTA de acuerdo:*

***Primero****.- Aprobar inicialmente el anexo de las tasas por la prestación de servicios de enseñanza en Beasaingo Loinatz Musika Eskola para el curso escolar 2017-2018:*

| IKASGAIAK | IKASTURTEKO KOPURUA/ |
|---|---|
| I. MAILA: Musika Tailerra | 210,00€ |
| I. MAILA: Hastapena | 267,50€ |
| II. MAILA: Instrumentua + Musika Lengoaia | 712,50€ |

| | |
|---|---|
| | |
| II. MAILA: Instrumentua / Akonpainamendua / Kantua | 535,00€ |
| II. MAILA: M. Lengoaia+Pandero / Kantu taldea | 530,00€ |
| II. MAILA: M. Lengoaia | 267,50€ |
| II. MAILA: Trikitixa | 460,00€ |
| III. MAILA: Instrumentua + Gai Teorikoa | 755,00€ |
| III. MAILA: Instrumentua/Akonpainamendua/Kantua/Errefortzu Gaia* | 560,00€ |
| III. MAILA: Trikitixa | 482,50€ |
| III. MAILA: Gai Teorikoak / Informatika | 267,50€ |
| IV. MAILA: Pop-Rock taldeak | 60,00€ |
| IV. MAILA: Abesbatza | 60,00€ |

| | |
|---|---|
| Panderoa | 332,50€ |
| Kantua taldean | 245,00€ |

| | |
|---|---|
| Piano Akonpainamendua (60´) | 820,00€ |
| Piano Akonpainamendua + Gai teorikoa | 990,00€ |
| MATERIALA /MATERIAL | 14,25€ |
| **IZENEMATEA 2018-2019 ikasturterako** | **45,00€** |

*Familia partaide kopuruarengatiko dirulaguntza:*

1. *partaideak: kuota osoak*
2. *partaideak: kuota osoak*

*Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.*

*- Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.*

*Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.*

***Bigarren**.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta zabalkunde handieneko Gipuzkoako egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedientea jendaurrean 30 lanegunez egongo da ikusgai, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.*

***Hirugarren**.- Inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabakia behin betirako onartutzat hartuko da, eranskinaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta argitarapenaren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.”*

*- Subvención por nº de miembros de familia:*
*1º miembro: cuotas íntegras.*
*2º miembro: cuotas íntegras.*
*Cuando haya 3 miembros de la misma familia: se subvencionará el importe correspondiente a la cuota de menor cuantía.*

*- En el momento de formalizar la matrícula se devenga la obligación de pago de la cuota anual, por lo que las bajas que puedan producirse durante el curso, con independencia de los meses que resten para su finalización, no generan derecho a la reducción de la misma.*

*Plazo de pago: el cobro de la cuota anual se fraccionará en 10 plazos mensuales durante los meses de septiembre a junio.*

***Segundo**.- Someter a exposición pública a los efectos de presentar reclamaciones, durante un plazo de 30 días hábiles a contar desde la última fecha de publicación de anuncios, en la página web del Ayuntamiento, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor difusión de la provincia.*

***Tercero**.- Si no se presentan reclamaciones, el acuerdo devendrá definitivo, y se publicará el texto íntegro del anexo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y surtirá efectos a partir del día siguiente a su publicación.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**3.- KONTU OROKORRA**. 2016ko Kontu Orokorra onartzeko proposamena.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): ondorengo azalpena eman du:

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

**3.- CUENTA GENERAL**. Propuesta de aprobación Cuenta General 2015.

El Sr. Alcalde (EAJ-PNV), ha expuesto lo siguiente:

“Musika eskolan diruzaintzako gerakina, 84.776,91 €koa da. Bankutan duen saldoa, 30.517,37 €koa da eta sarrera zein gastuetan, aurrekontua %99an gauzatu da.

Euskaltegian, diruzaintzako gerakina, 141.119,22 €koa da. Bankutan duen saldoa, 59.318,82 €koa da eta gastuetan aurrekontua %86an gauzatu da eta sarreretan, %86,5a.

Kiroldegian, diruzaintzako gerakina, 56.809,85 €koa da. Bankutan duen saldoa, 6.409,50 €koa da eta gastuetan aurrekontua %87an gauzatu da eta sarreretan, %69a (remanentea gutxitzea da honen arrazoia eta ekarpena Udalak egiten du).

Beasain Lantzen. Azpimarratu likidazioan dagoela. Kiroldegiaren balioaren amortizazioa dela eta, galerak 666.521,26 €koa da. Soziedadeak ez du aktibitaterik, baina eraikina patrimonioan dagoenez, amortizatu egin behar da urtez urte, eraikinaren balioa galtzen ari delako, Balio negatiboa hortik dator, hain zuzen ere,. Ez dago diru irterarik baizik eta gastu kontable bat da.

Udala. Behin betiko aurrekontua, 18.934.543,49 €koa da. Gastuen gauzatze maila, %78,66koa da. Sarreren gauzatze maila %87,38a eta diruzaintzako gerakina, 9.387.973,22 €. Saldoa, 10.970.321,39 eta Udalak duen zor bizia, 3.695.389,55 urteetan damakigun bidea ari gara eramaten. Hau da urtero amortizazioa, 500.000,00 € ingurukoa da, Udalaren zorrari dagokionez eta 2024an amaitzeko konpromisoa dago. Zorpetze maila %3,2a da.

Bukatzeko esan, Udala eta organismo autonomoen likidazio bateratuak aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzen dituela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**4.- MOZIOA**. Goierriko Foru bidegorriei buruzkoa.

Alkateak, Beasaingo EH BILDUko

“El remanente de tesorería en la Musika Eskola es de 84.776,91. El saldo bancario es de 30.517,37 y el grado de ejecución presupuestaria es del 99% tanto en ingresos como en gastos.

En el Euskaltegi el remanente de tesorería asciende a 141.119,22. El saldo bancario es de 59.318,82, el grado de ejecución presupuestaria es de 86% en gastos y de 86,5 en ingresos.

En el Polideportivo, el remanente de tesorería es de 56.809,85. El saldo bancario es de 6.409,50 y el grado de ejecución presupuestaria es del 87% en gastos y del 69% en ingresos (el objetivo es reducir el remanente y la aportación es municipal).

Beasain Lantzen está en liquidación. En lo referente a la amortización del valor del Polideportivo las pérdidas ascienden a 666.521,26 €. La Sociedad no tiene actividad, pero como el edificio está en el patrimonio hay que amortizarlo año por año, ya que el valor del edificio va disminuyendo. El valor negativo se debe a eso. No hay salida de dinero, sino que se trata de un gasto contable.

Ayuntamiento. El presupuesto definitivo asciende a 18.934.543,49. La ejecución del gasto es del 78,66%. La de los ingresos del 87,38% y el remanente de tesorería es de 9.387.973,22 €. El saldo es de 10.970.321,39 y la deuda viva del Ayuntamiento es de 3.695.389,55 €, siguiendo la tónica de los últimos años. Es decir, la amortización de la deuda del Ayuntamiento es aproximadamente de 500.000,00 € anuales, con el compromiso de liquidar en 2024. El nivel de endeudamiento es de 3,2%.

Para finalizar, tengo de que decir que la liquidación consolidada del Ayuntamiento y sus organismo autónomos cumple los requisitos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y regla de gasto.

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

**4.- MOCIÓN,** en relación a los bidegorris forales del Goierri.

El Sr. Alcalde ha dado la palabra al

bozeramaileari hitza eman eta honek ondorengo mozioa irakurri du:

“*GOIERRIKO FORU BIDEGORRIEN ERAIKUNTZAREN ALDEKO MOZIOA*

*Beasaingo EH Bildu Udal Taldeak aurkezten du Goierriko Foru Bidegorrien Eraikuntzaren aldeko mozioa, Beasaingo Udal Osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.*

*AURREKARIAK*

*Aurreko agintaldian, 2011/2015ekoan, hain zuzen, Bilduk kudeatzen zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana prestatu, onartu eta Gipuzkoako Batzar Nagusietara eraman zen. Bertan, Batzar Nagusietan ordezkatuta zeuden alderdi politiko guzti-guztiek, Aralar, PP, PSE-EE, EAJ/PNV eta Bilduk aldeko botoa eman zioten, Planak Foru Arau bilakatuz eta berau betetzea loteslea izanik.*

*Foru Arauaren hitzetan, jendarte aurreratuetan joan-etorriak nabarmen hazi dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainerako administrazio eta gizarte eragileekin batera, motorrik gabeko mugikortasunaren alde egiteko beharra ikusi du, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatuz. Horrela, bizikleta garrantzi handiagoa eta protagonismo gehiago hartzea beste garraiobideen aldean funtsezkoa da, izan ere, garraiobide biguna da, inguramenaren ikuspegitik iraunkorra, energiaren aldetik eraginkorra eta gizarte alorrean osasungarria eta bidezkoa.*

*Horregatik guztiagatik, ezinbestekotzat jo zen bizikletentzako eta oinezkoentzako herriarteko bide sare bat edukitzea, behar bezala planifikatua, eraikia, artatua eta zaindua, Gipuzkoako hirigune nagusiak lotzeko.*

*Horrela, herrietako eta herriarteko bizikleta bideen azpiegitura multzo moduan ulertu zen eta bederatzi ardatz nagusi edo ibilbidetan banatu zen Gipuzkoa osoa, 3. Ibilbidea, Donostia-Beasain, Goierri lotuko zena izan zelarik.*

*Bidegorri hauen eraikuntza, lau urteko bi etapatan programatu zen eta Foru Arauak markatzen zuen. Horretarako, urtero, gutxi gora behera, 14 miloi euro inbertitzea aurreikusten zen. Agintaldi honetan inoizko inbertsiorik txikienak egiten ari dira, 2016an inbertsioa 2.5 milioira ez zen iritzi eta aurten ezta 2 milioira. Argi dago, beraz, oraingo Foru Aldundiarentzat, zoritzarrez, bidegorrien eraikuntza ez dela lehentasun bat.*

*Aurreko agintaldian, berriz, Foru Arauen jasotzen zen egutegiaren arabera, Itsasondo/Ordizia bidegorria burutu zen. Lehenengo lau urtekoa bukatuta egonik,*

portavoz que de EH BILDU, quien ha leído la moción:

*“MOCIÓN A FAVOR DE LA CONSTRUCCIÓN DEL CARRIL BICI DE GOIERRI*

*El grupo municipal Eh Bildu de Beasain presenta la moción a favor de la construcción del carril bici foral de Goierri, con el objetivo de tratarla en el pleno ordinario de Beasain.*

*ANTECEDENTES*

*En la legislatura anterior (2011-2015) se preparó, se aprobó y se llevó a las Juntas Generales de Gipuzkoa el Plan de los carriles bici de Gipuzkoa; plan que gestionaba Bildu a través de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En esas Juntas General, todos los partidos políticos allí representados, Aralar, PP, PSE-EE, EAJ/PNV y Bildu, votaron a favor. Así, el Plan se convirtió en Norma Foral vinculante.*

*Según esa Norma Foral, en las sociedades avanzadas han crecido notablemente las idas y venidas; y, por ello, la Diputación Foral de Gipuzkoa, junto con las demás administraciones e instituciones, cree necesario apostar por la movilidad sin motor, promoviendo el uso de la bicicleta y la movilidad a pie. Así, es esencial darle más importancia y protagonismo a la bicicleta, ya que es un transporte blando, sostenible, eficiente, saludable y justo.*

*Por todo ello, se decidió que es esencial tener una red interurbana para las bicicletas y los peatones, debidamente planificado, creado, conservado y cuidado, con el fin de unir los principales núcleos urbanos de Gipuzkoa.*

*De ese modo, hay que entender la infraestructura de los carriles bicis de los pueblos y los interurbanos como si fuese un núcleo conjunto, y Gipuzkoa se dividió en nueve ejes centrales o rutas. La tercera ruta, Donostia-Beasain, es la que une Goierri.*

*La construcción de estos carriles bicis se programó en dos etapas durante cuatro años, marcado por la Norma Foral. Para ello, todos los años, se previó invertir 14 millones de euros, más o menos. En esta legislatura se están haciendo las inversiones más pequeñas; en 2016 la inversión no llegó a los 2,5 millones y este año no llega ni a los 2 millones. Por tanto, está claro que para la Diputación Foral, por desgracia, la construcción de carriles bici no es una prioridad.*

*En cambio, en la legislatura pasada, según el calendario recogido en la Norma Foral, se completo el*

*azken bi urte hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiak Goierrin bidegorri metro bat bera ere ez duela eraiki salatu behar dugu. Eta hau, oso Larria izanda ere, are larriagoa da Aldundiko Mugikortasun Sailak ez duela inongo asmorik Goierrin bidegorririk egiteko.*

*Dagoeneko, Segura/Zegama, Ordizia/Zaldibia eta Beasain/Idiazabal bidegorri adarrak eraikita eta bukatuta egon behar ziren arren, eraikuntza ez da egin eta aurten egitea ere ez da aurreikusten. Antza, bakarrik Segura/Zegamako azken zatia 2018rako bukatuta egongo da, oinezko eta txirrinduentzako bakarrik 3 metroko zabalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 4 metroetako zabalaren irizpideetatik oso urrun. Era berean, dagoeneko 2017-2021ko 2. lau urtekoan sartuta egonik ere, ez dagO inongo proiekturik Segura/Mutiloa edo Ataun/Lazkao bidegorriei buruz.*

*Beraz, eta goian azaldutako arrazoi guztiak ontzat harturik, mozio hau aurkezten dugu Beasainko Udalbatzan eztabaidatua eta onartua izan dadin.*

*ESKAERA*

- *Beasaingo Udalbatzak bat egiten du 2013ko ekainaren Oan Gipuzkoako Batzar Nagusietan aho batez onartu zen Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana (2013/2021) Foru Arauarekin eta eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari berau betetzea.*
- *Beasaingo Udalbatzak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak Goierrirako aurreikusten dituen foru bidegorrien eraikuntza ez baztertzea eta beraien lanei ahalik eta azkarren ekitea,denbora gehiagorik galdu gabe.*
- *Beasaingo Udalbatzak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari 2018ko aurrekontuetan partida bat sor dezala Goierrin 2013/2017ko . lau urtekoan eraiki behar ziren bidegorri guztien finantzaketa berma dezan.*
- *Beasaingo Udalbatzak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak Goierrirako aurreikusten dituen udal bidegorrien eraikuntza osatzeko 2018ko aurrekontuetan, helburu horri begira eta udalak diruz laguntza ,partida bat sor dezala.*
- *Beasaingo Udalak mozio hau Gipuzkoako Batzar Nagusietara, Gipuzkoako Foru Aldundira eta Gipuzkoako Bizikleten Kontseilura bidaliko du."*

*tramo Itsasondo/Ordizia. Denunciamos que al finalizar el primer cuatrienio, la Diputación Foral de Gipuzkoa no ha construido ni un solo metro de carril bici en Goierri. Y, aunque ese hecho sea muy grave, es más grave aún que el Departamento de Movilidad no tiene intención alguna de construir más carriles bici.*

*Aunque tendrían que esta terminados los tramos Segura/Zegama, Ordizia/Zaldibia y Beasain/Idiazabal, no se han hecho y tampoco hay intención de hacerlo. Parecer ser que solo se acabará el tramo Segura/Zegama para el 2018, con solo 3 metros de ancho para peatones y ciclistas, cuando en los criterios de la Diputación Foral de Gipuzkoa establece cuatro metros. Asimismo, aunque ya estemos en el segundo cuatrienio, 2017-2021, no hay ningún proyecto sobre Segura/Mutiloa o Ataun/Lazkao.*

*Por tanto, y por todo lo expuesto, presentamos esta moción para tratarla y aprobarla en el pleno de Beasain.*

*PETICIÓN*

- *El Pleno del Ayuntamiento de Beasain se une al Plan Territorial de Carriles Bici aprobado por unanimidad en las Juntas General de Gipuzkoa el 10 de junio de 2013.*
- *El Pleno del Ayuntamiento de Beasain pide a la Diputación Foral de Gipuzkoa que no deje de lado el Plan Territorial de Carriles Bici en Goierri, y que de comienzo a las obras cuanto antes, sin perder más tiempo.*
- *El Pleno del Ayuntamiento de Beasain pide a la Diputación Foral de Gipuzkoa que en los presupuestos de 2018 cree una partida con el fin de garantizar la financiación de la construcción de los carriles bicis que se iban a construir en el primer cuatrienio, 2013/2017.*
- *El Pleno del Ayuntamiento de Beasain pide a la Diputación Foral de Gipuzkoa que en los presupuesto de 2018 para completar la construcción de los carriles bici municipales previstos en el Plan Territorial de los Carriles Bici, y teniendo en cuenta ese objetivo y con la financiación del Ayuntamiento, cree una partida.*
- *El Ayuntamiento de Beasain mandará esta moción a las Juntas Generañes de Gipuzkoa, a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa.*

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "2011/2015 urteetan egindakoak aipatu dira, baina bidegorri kontua

El Sr. Alcalde (EAJ-PNV): "Se han mencionado los construidos en los años 2011/2015, pero el

2007/2011 legealdian hasi zen eta datuak esanguratsuak dira. Saiatuko naiz ahalik eta esanguratsuak esaten. 2008an onartu zuen lehenengo aldiz Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegorrientzako plan bat. Bertan, 404 km. Azaltzen ziren egin behar zirela eta 40.000.000,00 €ko aurrekontua zuen. 2010erako, 100 km. eginda zeuden. 2011/2015 legegintzaldian berriz, aurrekontuak egundoko murrizketa izan zuen, behar bada orduko egoera ekonomikoari erantzuten ziona, baina 2011n 11.000.000,00 € aurreikusita ba zeuden, 2013an, adibidez, 3.000.000,00 €ko aurrekontua zegoen. Hemerotekan argi ikusi daiteke "kalapie" elkarteak salaketa jarri zuela, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako murrizketa horregatik. 2013an, Koldok esanda bezala, Batzar Nagusietan bidegorri planaren aldaketa aho batez onartu zen, baina 404 km.etatik, 296 udalerrien artekoak ziren eta berriak, 288 km. ezartzen zizkion foru sareari: zortzi gutxiago. Aho batez onartu zen, baina ordurako 102,4 km. eginda zeudela. Urte bete beranduago, 12 km. besterik ez egin zen. 2013an onartutako plan berri horrek, urtero 14.000.000,00 € inbertitzea aurreikusten zuen bidegorrien eraikuntzako. Datuen arabera, 2012an 2,5 milioi gauzatu ziren eta 2014 eta 2015ean, beste 2,5 milioi. Hau guztiagatik aurreko legegintzaldian bidegorriei dagokionez, Goierri eskualdean burututako lanak ea hutsalak izan ziren, Ordizia-Itsasondo aipatutako lotura eta Lazkaoko bidegorriarentzat emandako diru laguntza izan ezik. Beasain ardatz hartuta ordea, Zegamarainoko bidegorria (azken zatia aurten amaituko da), Beasain-Idiazabal lotura, Ormaiztegi eta Ordiziakoa duela bi legegintzaldi egin ziren (2007tik 2011). Baita ere, Zaldibia eta Segura Mutiloa lotuko dituen proiektuak orduan egin ziren. Pasada den legegintzaldian (2011-2015) ez zen horrelakorik egin. Ez dakiguna da, Goierriko eskualdean agintean zeuden hiru herrietako buruek horrelako eskaririk egin zioten Foru Aldundiari, Foru Arauak dioena betetzeko. Pentsatzen dugu ezetz, zeren eta eskaerak 2015erako beteta egon behar zuten. Oraingo Foru Arauari dagokio araua betetzea eta benetan bat gatoz bidegorri sare bat behar dela, mugikortasun jasangarriaren lehen lerroan jarri behar gintuzkeena, baina nik pentsatzen dut 2011n bezala 2015ean, baliabide ekonomikoak murrizketak dituztela eta horrek mugatzen gaituela. Guk mozioa, ez dugu onartuko baina bai eskatuko diogu Foru Aldundiari adieraztea kronogramen lana eta zehaztea dituzten

asunto de los bidegorris comenzó en la legislatura del 2007/2011, y los datos son significativos. Mencionaré los más significativos. En 2008 la Diputación Foral de Gipuzkoa aprobó por primera vez un plan. En dicho plan se preveía la construcción de 404 km con un presupuesto de 40.000.000,00 €. Para el año 2010 ya estaban construidos 100 Km. Sin embargo en la legislatura de 2011/2015 el presupuesto sufrió una gran reducción, probablemente por la situación económica del momento, pero si el año 2011 había presupuestados 11.000.000,00 €, el año 2013 eran 3.000.000,00 €. Como se puede ver claramente en la hemeroteca la asociación "kalapie" puso una denuncia por la reducción efectuada por la Diputación Foral de Gipuzkoa. El año 2013, tal y como ha dicho Koldo, en las Juntas Generales se aprobó por unanimidad una modificación del plan de bidegorris, pero de los 404 Km, 296 era interurbanos y el nuevo plan atribuía 288 km a la red foral: ocho menos. Se aprobó por unanimidad, pero para entonces ya estaban construidos 102,4 Km. Un año más tarde solo se habían construido 12 Km más. El nuevo plan que se aprobó en 2013, contemplaba una inversión anual de 14.000.000,00 € para construcción de los bidegorris. Según los datos el año 2012 se ejecutaron 2,5 millones y el 2014 y el 2015 otros 2,5 millones. Por todo ello, durante la legislatura anterior los trabajos realizados en el Goierri fueron insignificantes si exceptuamos la unión Ordizia-Itsasondo y la subvención para el bidegorri de Lazkao. Si nos centramos en Beasain, el bidegorri hasta Zegama (el último tramo se finalizará este año), la unión Beasain-Idiazabal, la de Ormaiztegi y la de Ordizia se hicieron hace dos legislaturas (del 2007 al 2011). Los proyectos que unirán Zaldibia con Segura y Mutiloa se hicieron entonces. La pasada legislatura (2011-2015) no se hizo nada de eso. Lo que no sabemos es si los responsables que estaban en el poder de los tres pueblos de Goierri realizaron esta petición a la Diputación para que cumpliera la Norma Foral. Pensamos que no lo hicieron, porque para el año 2015 tendrían que estar cumplidos. Estamos de acuerdo en que es necesaria una red de bidegorris, que nos colocará en primera línea de la movilidad sostenible, pero pienso, que tanto el año 2011 como en el 2015 los recursos económicos se han reducido y ello nos limita. Nosotros no hemos aprobado la moción, pero solicitaremos a la Diputación Foral que realicen un cronograma de los trabajos y especifiquen las partidas destinadas a cumplir la

kontusailak, Foru Araua bete ahal izateko. Gu ez gara inor haiei exijitzeko aurretik exijitu ez dena (behar bada beste lehentasun ekonomikoak zeudelako). Eskatu egin behar zaie, bai, baina lehenago jakin zein inbertsio dituzten aurreikusita eta hortik abiatuta, aztertu zein ekarpen egin genezakeen."

Norma Foral. Nosotros no somos nadie para exigirles lo que no se les ha exigido anteriormente (probablemente porque había otras prioridades económicas). Hay que exigirlo, pero primeramente hay que saber qué inversiones tienen previstas, y partiendo de ahí ver cuál puede ser nuestra aportación."

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): "Bukatzeko aipatu bakarrik, denok gaudela mugikortasunaren alde. Orain arte egindakoak gehiago edo gutxiago izan dira, besteak beste, garbi daukagu 2015-2017an gauzan egin zirela. Herrian lehendik zegoen bidegorri sarea amaitu genuen, kiroldegitik hasi eta Ezkiaga etorbiderarte eta denok mugikortasun horren alde gaudenez, aurrera pausoak eman behar ditugu eta asmoetatik haratago joan eta egin."

El Sr. Koldo Agirre (Beasaingo EH BILDU): "Para finalizar, solamente añadir que todos estamos a favor de la movilidad. Hasta ahora se habrá hecho más o menos. Tenemos claro que entre los años 2015-2017 se han hecho cosas. Finalizamos la red de bidegorri que había en el pueblo, desde el polideportivo hasta Ezkiaga etorbidea y ya que todos estamos a favor de la movilidad, tenemos que avanzar y dar pasos en esa dirección sin quedarnos en las intenciones"

Mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Se ha sometido a votación la moción obteniéndose el siguiente resultado:

Aurkako botoak: 8 (EAJ-PNV)
Abstentzioak: 0
Aldeko botoak: 8 (Beasaingo EH BILDU eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Votos en contra: 8 (EAJ-PNV)
Abstenciones: 0
Votos a favor: 8 (Beasaingo EH BILDU eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Mozioa ez da aurrera atera berarekiko aldeko boto gehiago ez daudenez. Aldeko eta aurkako botoak berdinak izan dira eta berdinketa dagoenean Alkatearen kalitatezko botoak erabakitzen du.

Al no ser mayor el número de votos a favor, la moción no ha prosperado. El número de votos a favor ha sido el mismo que el número de votos en contra y cuando se da un empate lo decide el voto de calidad del alcalde.

**5.- ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA**. Irma Arnaiz Guillen andreak aurkeztutako zinegotzi karguaren errenuntzia.

**5.- RENUNCIA AL CARGO DE CONCEJAL**. Renuncia al cargo de concejal presentado por Irma Arnaiz Guillen.

Alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du, Irma Arnaiz Guillen zinegotzi andreak karguari uko egiteari buruzko idatzia aurkeztu duela.

El Sr. Alcalde (EAJ-PNV) ha dicho que la señora concejal Irma Arnaiz ha presentado la renuncia al cargo de concejal.

Alkatea jaunak, Leire Artola andreari (EAJ-PNV), hitza eman dio eta honek ondorengoa adierazi du:

El Sr. Alcalde, ha dado la palabra a la Sra. Leire Artola (EAJ-PNV) quien ha dicho lo siguiente:

"Irma Arnaiz zinegotziari eskertzea. Irmaren zinegotzi karguaren uko egiteari erantzunez, udal gobernu taldeak udal honi eta Beasaingo herriari emandakoa aitortu nahi dio. Nola ez eskertu bi urte hauetan berak gidatu duen sailean egindako lana eta erakutsitako konpromisoa aurrera eramandako proiektu eta ekimen guztietan!. Berak egindako lanak izango du jarraipena udal gobernu honen eskutik eta ez da hutsean

"Agradecimiento a la concejal Irma Arnaiz. Respondiendo a la renuncia al cargo de concejal de Irma el grupo de gobierno municipal quiere reconocer su aportación a este Ayuntamiento y al pueblo de Beasain. ¡Cómo no reconocer la labor realizada en el departamento que ha dirigido durante estos dos años y el compromiso que ha demostrado en todos los proyectos e iniciativas que ha llevado a cabo! Este gobierno dará

geratuko. Berarekin harremanak izandako ikastetxe, eragile, elkarte eta talde guztiek udalaren laguntza eta ateak zabalik izaten jarraituko dute, inolako zalantzarik gabe eta euren proposamenei irekita jarraitzen dugu. Gertatutakoa gertatu, udal gobernu taldea osatzen dugun gizon eta emakumeok, aho batez taldea uztea eskatu genion Irmari. Alderdiaren Beasaingo Juntak bere aldetik, zinegotzi kargua uzteko eskatu zion. Eskainua eta zinegotzi karguarekin ez jarraitzea bere erabakia izan da. Talde barruko jokabide printzipioak urrundu bagaituzte ere, aitortzen diogu Irmari bidelagun izana bi urte hauetan, gobernu taldean eta emandako gauza on guztiarekin geratzen gara."

Jarraian, Alkate jaunak Irma Arnaiz andreari hitza eman eta honek hitz hauek esan ditu:

"Kuriosoa da aipatu dituzun zenbat gauza, baina ni nire harira joango naiz. Nire idatzian agertzen den bezala, ez dut borondatez uzten kargu hau, baizik eta Leirek ondo esanda bezala, eskatu egin didatelako. Esplikatuko nuke zergatik ez dudan kargua utzi nahi. Arrazoi ezberdinak ditut. Ba duela bi urte pasatxo Aitor Aldasorok eskaini zidanean zerrendetan joatea, soilik berdintasun zaila eraman eta zehazki lan hori egiteko, nire profila dela eta, egia esan eta berari horrela esan nion, nire burua ez nuela politikan ikusten ibilbide honetan oso berria naizelako. Egun, aldiz, politikan neure burua ikusten dut. Kuriosoa da ibilbide honekin, baina oso eroso sentitu naiz. Politika herriarekin eta herriarentzat lan egitea da eta horretan oinarritu dit nire ekintza, nire hanka sartzeak barne. Kuriosoa da amaiera honekin ere, neure burua politikan erosoa ikustea. Hori da, hain zuzen ere, arrazoietako bat jarraitzeko edo ez uzteko.

Beste arrazoi bat jarraitzeko izango litzateke, arlo honetan ezagutzarekin sentitzen naizela, gogoarekin, indarrarekin eta beldurrik gabe honi ekiteko. Hemezortzi urte daramat lanean hezkuntza munduan, postu diferentetan eta baita Goierrian ere aritu naiz honetan lanean. Ni izatez pedagoga eta hezitzailea naiz. Bokaziozko lana dut. Hezitzaile izatek darama berdintasunaren alde lana egitea, eskola barruan zein kanpoan beti aritu naiz lanean eta beti bermatu nahi izan dut hezkuntzan ere, eskubide eta aukera berdinak izatea. Iruditzen zait horretarako hezkuntza klabea dela eta orain

continuidad a su trabajo. Todos los grupos, asociaciones y agentes seguirán teniendo el apoyo del ayuntamiento y tendrán las puertas abiertas, sin lugar a dudas y seguiremos abiertos a sus propuestas. Los hombres y mujeres que componemos el gobierno municipal hemos pedido por unanimidad a Irma que deje el grupo. La Junta de Beasain del partido por su parte, le pidió que dejara el cargo de concejal. Renunciar al escaño y al cargo de concejal ha sido decisión propia. A pesar de que los principios de actuación del grupo nos han alejado reconocemos a Irma que haya sido compañera de viaje durante estos dos años y nos quedamos con todo lo bueno que ha aportado"

A continuación el Sr. Alcalde ha dado la palabra a la Sra. Irma Arnaiz quien ha dicho lo siguiente:

"Algunas de las cosas que has mencionado son curiosas, pero yo iré a lo mío. Tal y como dice mi escrito, no dejo el cargo por mi voluntad sino porque tal y como ha dicho Leire, me lo han pedido. Explicaría porque no quiero dejar el cargo. Tengo diferentes razones. Hace un poco más de dos años cuando Aitor Aldasoro me propuso formar parte de las listas, solamente para dirigir el departamento de igualdad y realizar ese trabajo, debido a mi perfil, tal y como se lo dije a él, no me veía en política, porque soy nueva en esto. Hoy, por el contrario, me veo en la política. Es curioso con mi trayectoria, pero me he sentido muy cómoda. La política es trabajar con y para el pueblo y he basado en ello mis actuaciones, y también mis meteduras de pata. También es curioso que con este final me vea cómoda en política. Y esa es concretamente una de las razones para continuar y no renunciar al cargo.

Otro de los motivos para continuar sería, que me siento con conocimientos en este campo, con ganas, con fuerza y sin miedo para llevar a cabo mi trabajo. Llevo dieciocho años trabajando en el mundo de la educación, en diferentes puestos, y también he trabajado en esto en el Goierri. Yo soy pedagoga y educadora de profesión. Tengo un trabajo vocacional. El trabajo de educador conlleva trabajar por la igualdad, tanto dentro como fuera de la escuela, siempre he estado trabajando y siempre he querido garantizar también en educación los mismos derechos y oportunidades. Me parece que para ello la

ezagutu dut Udala ere klabea dela horretarako. Pribilegio eta ohore bat izan da, Beasaingo herriarentzat udalean lan honetan aritu izana. Lan hau egiteko, ildo estrategiko batzuk markatu ditugu, taldeak, nik uste nuen!. Ildo hauek PNVren aholkutan eta legean oinarrituta daude, Foru Aldundian, EUDELen eta EMAKUNDEk markatzen dituen helburutan. Ez dira suelto egin diren estrategi edo ekimen batzuk, baizik eta marko baten barruan helburu orokor eta zehatz batzuei erantzuten dien ekimenak dira. Lan honetan sinesten dut eta aldaketak ikusi ditut modu positiboan. Horregatik ez dut utzi nahi!. Eraldaketak ikusi ditudalako!. Guzti hau aurrera eramateko Beasainen egindako lanean oinarritu gara. Aurretik lan horretan aritu diren zinegotziekin konpartitu dugu hau guztia. Lan hau aurrera eramateko, lehen esan dudan bezala, herriarekin eta herriarentzat lan egin dugu. Eskerrak herriari eman behar dizkiot. Eragile ezberdinak. Eskolak behin eta berriz esaten dut, hezkidetza plan batetan sartu dira. Marko bat egin dugu. Bi urtetan eskeleto bat markatu dugu berdintasunaren alde eta eskolan barrutik, eskola bizituta, badakit askotan intromisio modura ulertzen direla kanpotik datozen gauzak, baina Beasaingo eskola guztiak onartu dituzte Udalak markatutako zenbait irizpide eta beraienak egin dituzte. Seaskako haurreskolak ere parte hartu nahi izan du honetan guztian. Musika Eskolak, irakurle taldeak ere parte hartu dute. Elkarlan baten sinergiak batuz lanean aritu gara. Asmubeko taldea oinarri izan dugu. Talde feministak, Beasaingo Forue. Bertan jaitakoa naiz ni, beraiekin jaio nintzen. Oriako Lamiak, batzuk hemen zaudete, Goierriko Zubiak, izugarrizko deskubrimendua izan da niretzat aurten. Kontzientzia moreak, bakoitzak beraien esparrutan independienteki lanean eta elkarlanean aritu gara. Zer esanik ez beste partidu politikoekin, EH BILDU eta PSOEkin. Oso eroso sentitu naiz lanean. Ildo berdinak eta helburua berdinak geneuzkan eta lanean aritu gara. EUDELekin eta Foru Aldundiarekin egoteko aukera izan dut. Batzuetan PNV alderdikideekin eta beste batzuetan beste partidukoekin. Profesionala eta lan bikaina egiten aritu gara. Hori uzteak izugarrizko pena ematen dit!. Ikusten den eraldaketa bat eta kalitatezko lan bikaina eta horren parte izan naiz. Balioan jarri nahi dut politikak duen balioa eta politikoak egiten dugun lana. Sinestu egiten dut politikan. Sartu aurretik gutxiago. Orain sinestu egiten dut eta

educación es la clave y ahora he descubierto que también lo es el Ayuntamiento. Ha sido un privilegio y un honor trabajar en este ámbito en el Ayuntamiento. Para realizar este trabajo, hemos marcado unas líneas estratégicas, ¡yo pensaba que el grupo! Estas líneas están basadas en los consejos del PNV y en las leyes, y en los objetivos que marcan la Diputación Foral, EUDEL y EMAKUNDE. No han sido unas iniciativas o estrategias sueltas, sino que son unas iniciáticas que responden a unos objetivos generales y concretos dentro de un marco. Creo en este trabajo y hemos observado unos cambios positivos. ¡Por ello no quiero dejarlo! ¡Porque he visto cambios! Para llevar adelante esto nos hemos basado en el trabajo realizado anteriormente en Beasain. Hemos compartido esto con los concejales que han trabajado en esto antes. Para realizar este trabajo, tal y como he dicho antes, hemos trabajado con el pueblo y para el pueblo. Mi agradecimiento es para el pueblo. A distintos agentes. Las escuelas, lo digo una y otra vez, han elaborado un plan de coeducación. Hemos creado un marco. En dos años hemos creado un esqueleto a favor de la igualdad desde la escuela. Ya sé que muchas veces las cosas de vienen de fuera se ven como una intromisión, pero todos los centros escolares de Beasain han aceptado y ha hecho suyos algunos de los criterios marcados desde el Ayuntamiento. Seaska también ha querido participar, la Musika Eskola, el grupo de lectura… Hemos estado trabajando conjuntamente en esto. Hemos tenido como base la asociación Asmube, el grupo feminista, el Foro de Beasain. Yo he nacido aquí, nací con ellos. Oriako Lamiak, algunos estáis aquí, Goierriko Zubiak, ha sido un gran descubrimiento para mi este año. Kontzientzia morea, hemos estado trabajando independientemente cada uno en su ámbito y conjuntamente. Ni que decir del resto de los partidos políticos, EH BILDU y PSOE. Me he sentido muy cómoda trabajando. Teníamos los mismos objetivos y líneas de trabajo, y hemos trabajado en ello. He tenido ocasión de estar con EUDEL y la Diputación Foral, a veces con compañeros del PNV y otras veces con los de otros partidos. Hemos hecho un gran trabajo profesional. ¡Me da mucha pena dejar todo esto! Un cambio que se ve y un gran trabajo de calidad, y yo he participado en ello. Quiero dar valor al valor de la política y al trabajo que hacemos los políticos. Creo en la política. Antes de entrar creía menos. Ahora creo en la política y quiero hacer

aldarrikapen hori egin nahi dut. Udalaren politika, ordea, ez da ezer herriari gabe eta herriari entzun egin behar zaio. Herria eraldatzeko gaude eta herriaren zerbitzura gaude. Horregatik guztiagatik izugarrizko pena ematen dit joatea eta beltzez ez naiz zoriz jarri, baizik eta mina sentitzen dudalako.

esa reivindicación. Pero la política municipal no es nada sin el pueblo y para ello hay que escuchar al pueblo. Estamos al servicio del pueblo para cambiar el pueblo. Por todo ello me da una gran pena marcharme y no me he vestido de negro por casualidad, sino porque siento dolor.

Zergatik uzten dudan?. Leirek eman ditu klabe batzuk eta eskertzen diot aurreratzea. Berdintasun saila eramatea ez da erraza. Horrekin ez dut esan nahi beste departamenduek errazak direnik. Ez dakit..., farola bat aurreago edo atzeago…, ez diot inori garrantzirik kendu nahi, baina kontzeptu kontu bat da. Beste kontu bat da berdintasunean hesitzea. Berdintasunak hesitzea dakar, mendeetan izan ditugu baloreak haustea neurri handi batean eta hausnarketa sakona, profundoa eta indibiduala egitea. Hori dakar. Hori herriari esatea, oso zaila da. Horregatik ditugu profesionalak diren teknikoak hori lantzeko. Horregatik ditugu gomendioak. Nik bakarrik ezingo nuke horrelako ezer egin. Saila berez, ez bada erraza. Niri gauzak zaildu zaizkit, nire taldeak bizkarra eman didanean. Nire taldea esaten dudanean ez dut esaten alderdia, ez dut esaten PNV. Esaten dut udal taldea. Talde hau osatzen duten pertsonak. Talkak, gaizki ulertuk, ez ulertuk eta oztopoak. Azkeneko urtean esango nuke. Azkeneko zazpi hilabetetan bazterkeria hitza etortzen zait burura. Eta azken hiru hilabetetan, komunikazio eza. Saiatu naiz, arazoa bideratzen eta hemengo askok badakizue ondo asko. Galdetu du tea zergatik eskatzen zidaten bi hiru hilabete uzteko. Nik ez dut zentzuzko erantzunik jaso. Nire pertzepzioa, nire irakurketa da. Hanka sartzeak mila egingo nituen!, baina asko dakitenak ez didate erakutsi. Zer bai, zer ez, hemendik hobeto, hemendik okerrago. Izugarrizko sorpresa jaso dut honekin guztiarekin. Sorpresa eta dezepzioa. Oso gogorra izan da ibilbide hau. Uzte nuen taldearen parte nintzela. Alderdi honek ardatza pertsona harten du, baina nik hemen barruan ez dut hori bizitu. Ni ere pertsona naiz eta ez dut hori bizitu. Hori da uztearen arrazoia. Lan baterako deitu ninduten, baina oraindik ez dakit, nitaz ze espero zen. Bihotz bihotzez, nire hanka sartzeekin, ahal dudan guztia egin dut. Gai honekin ibilbide bat badut eta ez naiz aritu norabiderik gabe. Zentzuz aritu naiz lanean. Mina sentitu dut, baina badamakit sendatze prozesu bat. Eskerrak eman nahi nizkieke, udal barrutik hasita, bertako teknikoei. Profesional bikainak zinetela banekien,

